



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko maiatzaren 14a

63. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, etxebizitzaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Galdera, ikus-entzunezkoen ekoizpenaren eta sektore horretako finantzaketa publikoko irizpideen arlo orokorrari buruzkoa. Interpelazioa erretiratzea (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontu-partida bat egon dadin toki entitateei dirulaguntzak emateko deialdia egin ahal izateko, nork bere plan integralak ezarri ahal izan ditzan irisgarritasunaren arloari dagokionez. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPEkin batera egin ditzan Matematikako Gradua eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua 2022-2023 ikasturtean ezartzeko egin beharreko azterketak eta azterlanak, eta susta dezan Genero eta Berdintasun Ikasketen Katedraren sorrera. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 15/2005 Foru Legea alda dezan, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legean ezarritakora egokitzeko. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da prebentzio-neurriak mantentzen eta indartu ditzen, osasun-arretako zentroetan erasoak amaiarazteko. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari exigi diezaion COVID-19aren aurkako txertoen patenteak aldi baterako liberalizatzearen aldeko jarrera har eta defenda dezala Espainiako Estatuak Europako Batzordearen eta MMA-Munduko Merkataritza Antolakundearen aurrean. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatua zatitzeko ekimena errefusa dezan eta nafar ekoizleen interesak defenda ditzan. Osoko Bilkurak ezetsi du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, errefusatzen da Gizarte Segurantzako Ministerioak egindako proposamena, pensioaren zenbatekoa kalkulatzeko erabiltzen den kotizazio-aldia 25 urtetik 35 urtera igotzekoa. Osoko Bilkurak ezetsi du (8. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Caparrosoko abeltegitzarraren instalazioetarako Ebroko Konfederazio Hidrografikoak emakidak edo baimenak emateari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, energia berriztagarrien proiektuetan udal autonomia errespetatzeari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Aroztegiko Konpentsazio Batzordeak 2020ko ekainaren 15eko 13/2020 epaiaren aurka jarritako kasazio-errekurtsoan Gobernu pertsonatzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, “Enplegarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatze pizgarriak” partidari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (13. or.).
- Galdera, “Luzaroko langabeak kontratatze pizgarriak” partidari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (13. or.).
- Galdera, “Errenta Bermatuaren hartzaileak kontratatze pizgarriak” partidari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (14. or.).
- Galdera, “Enpresa arruntek pertsona desgaituak kontratatze laguntzak” partidari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (14. or.).
- Galdera, “Enplegarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatze pizgarriak” partidako laguntza teknikorako aurrekontuari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (15. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, etxebizitzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko interpelazioa, etxebizitzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidez.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, etxebizitzaren arloko politika orokorrari buruzko honako interpelazio hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Alokairuko etxebizitzaren 10.000 eskatzaile baino gehiago egoteak argi erakusten du egoera larria dela eta oraindik ere bide luzea egin beharra dagoela etxebizitza duin baterako eskubidea, zeina nafar guztiena baita, bermatzeko. Aste honetan bertan entzun ahal izan dugu Parlamentuan Arartekoak zer uste duen alokairuaren arloko talka-plan bat taxutzeko eta egungo neurrietako batzuek sortzen dituzten arazoak gainditzeko beharri buruz.

Arazo hau, zeina etxebizitzaren arloan aurreko bosturtekoetan baliatutako politiketatik heldu baita, berehala konpontzerik ez badago ere, administrazio publikoek erabakitasunez, baliabideak jarriz eta arduraz jardun beharko dute egoera larri honi aurre egiteko. Eta iraunkortasun-printzipioarekiko, demografia-aurreikuspenekiko, despopulazioari aurre egiteko politiketikiko, kontsumo- nahiz mugikortasun-eredu berri baten bultzadarekiko eta autosufizientzia energetikoarekiko koherentziaz ere bai. Orain arte ezarritako jarduketek eta orain aurreikusitakoek zer eragin izan duten eta ares-tian azaldutako printzipioekin nola ezkontzen diren jakiteko aurkezten dugu interpelazio hau.

Iruñean, 2021eko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, ikus-entzunezkoen ekoizpenaren eta sektore horretako finantzaketa publikoko irizpideen arlo orokorrari buruzkoa.

INTERPELAZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Bakar txo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko interpeleazioa erretiratu izanaz. Galdera ikus-entzunezkoen ekoizpenaren eta sektore horretako finantzaketa publikoko irizpideen arlo orokorrari buruzkoa zen, eta

2020ko azaroaren 20ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/ITP-00034).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontu-partida bat egon dadin toki entitateei dirulaguntzak emateko deialdia egin ahal izateko, nork bere plan integralak ezarri ahal izan ditzan irisgarritasunaren arloari dagokionez.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak, 2021eko maiatzaren 5ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontu-partida bat egon dadin toki entitateei dirulaguntzak emateko deialdia egin ahal izateko, nork bere plan integralak ezarri ahal izan ditzan irisgarritasunaren arloari dagokionez".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du datozen aurrekontu orokorre-

tan partida bat egon dadin toki entitateei dirulaguntzak emateko deialdia egin ahal izateko, nork bere plan integralak ezarri ahal izan ditzan irisgarritasunaren arloari dagokionez; plan horietan, bai araudi guztia bai foru lege horren aplikazio esparrua osatzen duen errealitate objektiboa aztertuko da, foru legean ezarritako irisgarritasun unibertsalerako neurrietara pixkanaka egokitzen joateko, edo, kasua bada, arrazoizko egokitzapenak gauzatzeko, neurriak, egutegia eta beharrezkoak diren diru zenbatekoak ere zehaztuta".

Iruñean, 2021eko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPekin batera egin ditzan Matematikako Gradua eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua 2022-2023 ikasturtean ezartzeko egin beharreko azterketak eta azterlanak, eta susta dezan Genero eta Berdintasun Ikasketen Katedraren sorrera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko maiatzaren 6an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPekin batera egin ditzan Matematikako Gradua eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua 2022-2023 ikasturtean ezartzeko egin beharreko azterketak eta azterlanak, eta susta dezan Genero eta Berdintasun Ikasketen Katedraren sorrera”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du NUPekin batera egin ditzan Matematikako Gradua eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua 2022-2023 ikasturtean jartzeko egin beharreko azterketak eta azterlanak.

Era berean susta dezan, NUPekin elkarlanean, Genero eta Berdintasun Ikasketen Katedraren sorrera eta horren abiatze ahalik azkarrena”.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 15/2005 Foru Legea alda dezan, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legean ezarritakora egokitzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko maiatzaren 6an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 15/2005 Foru Legea alda dezan, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legean ezarritakora egokitzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 15/2005 Foru Legea alda dezan, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legean ezarritakora egokitzeko, lege horiek

esparru juridiko berrira egokitu behar direla ezarritzen baita bertan.

2. Legearen erregelamendu bidezko garapena ezar dezan, halako moduan non bateragarriak izan ahalko baitira Nafarroako arkitektura eta kultur ondarea zaintzeko behar diren bermeak eta ondare horren energia-efizientzia maximizatzea eta energiaren autokontsumo berriztagarriko instalazioak paratzea gure erkidegoko eraikin publiko eta pribatuetan.

3. Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak finantzaketa-lerro bat gaitu dezan, aitoren historiko edo arkitektonikoa duten eraikin ofizialki babestuen zaharberritzean energia-efizientzia eta ondare-balioa bermatzeko. Lerro hori Europako funtsekin finantzatuko da.

4. Aurreko apartatuetan aurreikusitako jarduketan egutegi bat egitea urtea amaitu baino lehen, eta horrekin batera, jarduera horiek 2022an abiarazteko behar adinako finantzaketa ezartzea Nafarroako hurrengo aurrekontuetan.

5. Prozesuan bi departamentu horiek –Kultura eta Kirol Departamentua eta Lurralde Antolamen-

duko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua– eta toki entitateen nahiz ukitutako elkarteen ordezkariak parte har dezaten”.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da prebentzio-neurriak mantentzen eta indartzen dituzan, osasun-arretako zentroetan erasoak amaiarazteko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko maiatzaren 6an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da prebentzio-neurriak mantentzen eta indartzen dituzan, osasun-arretako zentroetan erasoak amaiarazteko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Prebentzio-neurriak mantentzen eta indartzen dituzan, zentroetan diharduten langile guztiekiko erasoak amaiarazteko, bai Oinarrizko Osasun Laguntzan, bai Espezializatuan ere, larrialdi zerbitzuak lehenetsiz.

2. Erasoetarako alarma-sistemak ezartzeko plana osa dezan –bereziki, Oinarrizko Osasun Laguntzan–; esaterako, sakagailu finkoak edo eskumuturrekoak, bideozaintzako kamerak, altzariak aldatzea edo arrisku-eremuetako zenbait guneren egitura aldatzea.

3. 2020an programatutako ikastaroak –autodefentsako teknikei eta erasoak prebenitzeko gaitasunak lortzeko buruzkoak– egin dituzan, azkenean ezin baitziren egin.

4. Herritarrak kontzientziatzeko kanpaina bat prestatu eta zabal dezan.

5. Erregistro ofizial bat sor dezan, zeinetan jasoko baita Nafarroan osasun arloko langileek pairatzen dituzten erasoak kopuru zehatza.

6. Gorabeherak eta erasoak erregistratzeko sistema ere hobetu dezan, eta profesionalak anima dituzan salaketa egitera, gertakari horiek nola eta zer inguruabarretan agertzen diren hobeto ezagutu eta prebentzioa egin ahal izate aldera.

7. Sustapen, prebentzio, erantzun eta babeserako harturiko neurrien eraginkortasuna monitorizatzen dezan eta eraginkortasun hori areagotzeko estrategia berriak ezar dituzan.

8. Laguntza psikologiko eta/edo legala, akonpainamendua eta behar duten gainerako edozein laguntza eman diezaien eraso eta/edo mehatxua jasaten duten profesionalak.

9. Txosten bat presta dezan, urteko ebaluazio bat jasoko duena honako hauei buruz: osasun arloko profesionalak eginiko erasoak zergatiak, hartutako neurrien inpaktua –datuak gutxienez ere sexuaren arabera bereiziz–, laguntza-maila eta profil profesionala; eta, halaber, plan bat presta dezan hurrengo ekitaldian gauzatu beharreko neurriekin, egindako ebaluazioan identifikatu diren hobetze-arloetan oinarrituta”.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari exigi diezaion COVID-19aren aurkako txertoen patenteak aldi baterako liberalizatzearen aldeko jarrera har eta defenda dezala Espainiako Estatuak Europako Batzordearen eta MMA-Munduko Merkataritza Antolakundearen aurrean.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko maiatzaren 6an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari exigi diezaion COVID-19aren aurkako txertoen patenteak aldi baterako liberalizatzearen aldeko jarrera har eta defenda dezala Espainiako Estatuak Europako Batzordearen eta MMA-Munduko Merkataritza Antolakundearen aurrean".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Espainiako Gobernuari exigi diezaion COVID-19aren aurkako txertoen patenteak aldi baterako liberalizatzearen aldeko jarrera har eta defenda dezala Espainiako Estatuak Europako Batzordearen eta MMA-Munduko Merkataritza Antolakundearen aurrean, elkarlana ahalbidetze aldera, txertoak areago eta azkarrago eskuragarriak, irisgarriak eta ordaingarriak izatea".

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatua zatitzeko ekimena errefusa dezan eta nafar ekoizleen interesak defenda ditzan.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko maiatzaren 6an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatua zatitzeko ekimena errefusa dezan eta nafar ekoizleen interesak defenda ditzan". Mozioa Miguel Bujanda Cirauqui jaunak

aurkeztu zuen eta 2021eko maiatzaren 4ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, errefusatzeko da Gizarte Segurantzako Ministerioak egindako proposamena, pentsioaren zenbatekoa kalkulatzeko erabiltzen den kotizazio-aldia 25 urtetik 35 urtera igotzekoa.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko maiatzaren 6an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: "Mozioa. Horren bidez, errefusatzeko da Gizarte Segurantzako Ministerioak egindako proposamena, pentsioaren zenbatekoa kalkulatzeko erabiltzen den kotizazio-aldia 25 urtetik 35 urtera igotzekoa". Mozioa Izquierda-

Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu zuen eta 2021eko urtarrilaren 18ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Caparrosoko abeltegitzarraren instalazioetarako Ebroko Konfederazio Hidrografikoak emakidak edo baimenak emateari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Caparrosoko abeltegitzarraren instalazioetarako Ebroko Konfederazio Hidrografikoak emakidak edo baimenak emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Adolfo Araiz Flamariquek, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hauek egiten dizkio Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren azaroaren 11ko 2275/2009 Ebazpenaren bidez, ingurumen-baimen integratua eman zen, eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin, Caparrosoko udal mugapean esne-behien abeltxe bat eta hondakin organikoen biometanizazio planta bat jartzeko; titularrak Valle de Odieta, S.C.L., HTN, S.L. eta Corraliza Tomillar, S. Coop. ziren. Hartan, ur-kontsumoei dagokienez esaten zen Aragoi ibaiko putzu alubial batetik eginen zela ur-hornidura, guztira 209.647 m³/urtean.

Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 12ko 222E/2021 Ebazpenaren bidez, ingurumen-baimen integratua eman zen, berriz, Caparrosoko udal mugapean dagoen esne-behien

ustiategi eta hondakinen biometanizazio planta batentzat. Instalazioaren titularrak Valle de Odieta SCL eta Hibridación Termosolar Navarra SL dira. Ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin zen, esnetarako behien kopurua handitzeko, 3.450etik 7.200era (12 nabe bete abere), eta biometanizazio plantaren funtzionamendua aldatzeko, erregimen termofiloa ezarri. Ingurumen-baimen berri horrek aurreikusten du kontsumoa 327.040 m³-koa izatea urtean.

Halere, Uren Erregistroan honako baimen hau baino ez da ageri:

“Sección A. TOMO: 56 HOJA: 127 Numero 127

Fecha Resolución 30/05/2008 Fecha Reversión 30/05/2083Expediente/s 2006-P- 719

Corriente o acuífero: pozo ubicado en la margen izquierda del rio Aragón (90123), fuera de zona de policía de cauces.

Clase y afección: suministro de ganado. número de cabezas: 320 cabezas de ganado bovino en explotación ganadera situada en el polígono 8, parcelas 56 y 138.

Titular/es Valle de Odieta, S.C.L.

Lugar, termino y provincia de la toma paraje el Olmar, polígono 8, parcela 138, Marcilla (Navarra)

Caudal (l/s) caudal medio equivalente en el mes de máximo consumo (l/s): 0,23 Volumen máximo anual (m³/ha) 6.542 M3

Titulo-Fecha-Autoridad Resolución del Presidente de la Confederación Hidrográfica del Ebro de fecha 30 de mayo de 2008.

Condiciones Específicas:

-1ª.- el caudal un caudal máximo instantáneo no podrá exceder de 0,8 l/s, ni extraerse un volu-

men superior a 625 m3 en el mes de máximo consumo.

-2ª.- las obras ya ejecutadas y que por medio de esta resolución se legalizan, consisten fundamentalmente en un en un pozo de sección circular de 0,23 metros de diámetro y una profundidad de 33 metros, revestido de tubería metálica, tomándose el caudal necesario por medio de una bomba sumergida (electrobomba) de 2 cv de potencia situada a una profundidad de 20 metros.

-3ª.- se otorga esta concesión por un plazo de 75 años contados a partir de la fecha de su otorgamiento.

-4ª.- la fecha de reversión queda fijada en el día 30 de mayo de 2083.

Nafarroako Gobernuak Caparrosoko instalazioetarako emandako ingurumen-baimen integratuetan ez da inon ere inskribatuta ageri ez ingurumen-baimen integratu horien titularrekin, ez xedearekin, ez kokaleku edo aipatutako bolumenekin bat datorren aprobetxamendurik.

Abeltegizarra –urteak joan dira ustiatzen hasi zenetik– Caparrosoko (Nafarroa) herrian dago (17. poligonoa, 48, 50, 51, 52, 53, 54, 55. lurzatiak, Corraliza de Tomillar y Piteo eremua, Ebroko Barrutia), eta Valle de Odieta SCL enpresak kudeatzen du.

Hor dela-eta, parlamentari naizen aldetik honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzuteko:

1.- Nafarroako Gobernuak ziurtasunez al daki Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak emandako ingurumen-baimen integratuek ukitutako instalazioetan erabiltzekoak diren Ebroko Konfederazio Hidrografikoak emandako ur-aprobetxamenduren baten titularrak ote diren Valle de Odieta, S.C.L., Hibridación Termosolar Navarra, S.L. eta Corraliza Tomillar merkataritza-enpresak, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren lehendakariaren 2008ko maiatzaren 30eko Ebazpenaren bidez Martzillako herrian emandakoaz bestela (A ataleko 56. liburukiko 127. orriko 127. zenbakia)?

2.- Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren azaroaren 11ko 2275/2009 Ebazpenaren bidez ingurumen baimen integratua eman ostean, instalazio horien titularrek egiaztatu al dute Nafarroako Gobernuaren aitzinean instalazio horiek Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren inolako emakida edo baimenik ote daukaten “Aragoi ibai-ko putzu alubialen batean” urtean 209.647 m3-ko emaria eduki ahal izateko? Hala baldin bada, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak eman eta Nafarroako Gobernuaren esku dauden baimenaren edo baimenen kopia jaso nahi dut.

Iruñean, 2021eko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, energia berriztagarrien proiektuetan udal autonomia errespetatzeari buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkezturiko galdera, energia berriztagarrien proiektuetan udal autonomia errespetatzeari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2030erako Nafarroako Energia Planak honako hau jasotzen du bere helburu eta adierazleetan:

“Administrazioko departamentu guztiei eta udalei babesa ematea energiaren arloko jarduketara eta kudeaketara”.

Nafarroako Gobernuak parke eolikoak paratzeko 45 eskaera jaso ditu dagoeneko. “la aurrekaririk gabeko igoera” gertatzen ari da parke eoliko eta fotovoltaiko berriak paratzeko eskaeretan.

Azken hilabeteotan zenbait udal eta kontzeju azaldu dira proiektu zehatz batzuk garatzearen aurka, bai Osoko Bilkurak espresuki hartutako erabakien bidez, bai kasuko alegazioak aurkeztuz.

Horri buruz, parlamentari naizen honek hauxe jakin nahi dut:

- Nafarroako Gobernuak errespetatuko al ditu, proiektuen eskabideak izapidetzeko eta ebazteko prozesuetan, Nafarroako udal eta kontzejuak beren autonomia baliatuta hartutako erabaki edo akordioak?

- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik udalez gaindiko plan edo proiekturik garatzeko, baldin eta udal edo kontzejuen batek baimentzen ez badu bere ondare- edo herri-ondasunak lagatzea edo erabiltzea proiektu horiek garatzeko?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

Galdera, Aroztegiko Konpentsazio Batzordeak 2020ko ekainaren 15eko 13/2020 epaiaren aurka jarritako kasazio-errekurtsoan Gobernua pertsonatzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Aroztegiko Konpentsazio Batzordeak 2020ko ekainaren 15eko 13/2020 epaiaren aurka jarritako kasazio-errekurtsoan Gobernua pertsonatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera idatzi hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan:

Nafarroako Gobernuko lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilari José María Ayerdik, parlamentari honek galdetuta, joan den martxoaren 25ean aitortu zuen Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordea ez zela betetzen ari honako hauek: alde batetik, Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak uztailaren 23an hartutako 64/2019 Erabakia (haren bidez ebatzi zen "Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordearen urbanizazio-proiektuaren urbanizazio-obraen lehen faseko obrak kontratatzeke baldintzak arautzen dituen agiria" dela-eta aurkeztutako erreklamazio berezia, orobat agiri hori baliogabetuz eta esleipen-prozedurarekin ezin zela jarraitu deklaratur) eta, bestetik, Nafarroako Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak 2020ko ekainaren 15ean emandako 137/2020 Epaia, aurkeztutako errekurtsioa ezetsi eta aipatu 64/2019 Erabakia berretsi zuena.

Gaur, Geroa Baiko parlamentari baten galderei erantzunez adierazi du Konpentsazio Batzorde horretako lehendakariak Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiari martxoaren 3an jakinarazi ziola urbanizazio obraren zuinketa-akta sinatu izana. Orobat adierazi du zuinketa-akta hori ez dela irmoa, izapidetzeko onartu baita ekainaren 15eko 137/2020 epaiaren aurkako kasazio-errekurtsio bat, eta hortaz legearen arabera izanen litzatekeela obraren exekuzioa, inork ere ez baitu eskatu epaia behin-behinean exekututzea.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

1.- Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak zergatik ezkutatu zion 2021eko martxoaren 25ean talde parlamentario honi martxoaren 3an jakinarazi zitzaizola departamentuari Aroztegiko urbanizazio-lanen zuinketa-akta sinatu zela?

2.- Gure talde parlamentarioari erantzun zionean ez zeukan horren berri ala nahita utzi zen informazioa eman gabe, beste galdera batzuei erantzutean eman ahal izateko (zehazki, Geroa Bai talde parlamentarioak aurreikusita izan zitzaizkeen)?

3.- Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren uztailaren 23ko 64/2019 Akordioaren bidez ebatzi zen "Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordearen urbanizazio-proiektuaren urbanizazio-obraen lehen faseko obrak kontratatzeke baldintzak arautzen dituen agiria" dela-eta aurkeztutako erreklamazio berezia, eta Nafarroako Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak 2020ko ekainaren 15ean emandako 137/2020 Epaia bidez berretsi zuen akordioa eta ezetsi zuen aurkeztutako errekurtsioa. Gobernuak nola aldeztuko du prozesu salki 64/2019 akordioa?

4.- Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordeak kasazio-errekurtsioa aurkeztu zuen Nafarroako Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak 2020ko ekainaren 15ean emandako 137/2020 Epaia aurka. Nafarroako Gobernuak alderdi errekurritu gisa pertsonatuko al da Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren ebazpenen defentsan, auzitegi hori Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren mendeko administrazio-organoa den aldetik?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, “Enplegagarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak” partidari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “Enplegagarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak” partidari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“Enplegagarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak” 4 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan 1.500.000 euroko aurrekontua ezartzen da 2021erako. Zer aurrekontu-partidatan oinarrituta eta zer dirukopururekin garatuko da jarduketa hori? Proiektu horretara bideratutako diru-zuzkidura aurreikusita al zegoen hasierako aurrekontuan, ala aurrekontuan jaso beharreko kreditu handiagoa al da?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “Luzaroko langabeak kontratatzeko pizgarriak” partidari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “Luzaroko langabeak kontratatzeko pizgarriak” partidari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren 2020ko aurrekontuan honako partida hau ageri da: 950001 96100 4709 241206 “Luzaroko langabeak kontratatzeko pizgarriak”.

Partida hori zergatik ez da jaso 2021eko aurrekontuan?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “Errenta Bermatuaren hartzaileak kontratatzeko pizgarriak” partidari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “Errenta Bermatuaren hartzaileak kontratatzeko pizgarriak” partidari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren 2020ko aurrekontuan honako partida hau ageri da: 950001 96100 4709 241204 “Errenta Bermatuaren hartzaileak kontratatzeko pizgarriak”.

Partida hori zergatik ez da jaso 2021eko aurrekontuan?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “Enpresa arruntek pertsona desgaituak kontratatzeko laguntzak” partidari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “Enpresa arruntek pertsona desgaituak kontratatzeko laguntzak” partidari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren 2020ko aurrekontuan honako partida hau ageri da: 950001 96100 4709 241105 “Enpresa arruntek pertsona desgaituak kontratatzeko laguntzak”.

Partida hori zergatik ez da jaso 2021eko aurrekontuan?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “Enplegagarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak” partidako laguntza teknikorako aurrekontuari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “Enplegagarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak” partidako laguntza teknikorako aurrekontuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozietateko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“Enplegagarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak” 4 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan 180.000 euroko aurrekontua ezartzen da laguntza teknikorako.

Zertan datza laguntza tekniko hori?

Noizko aurreikusten da lizitazioa? Zer baldintzatan? Zer prozedurarekin? Zer aurrekontu-partidatan oinarrituta?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

